

# HONDARRIBIKO

## FESTA NAGUSIAK 2023

BIDASOA.HITZA.EUS  
OARSOALDEA.HITZA.EUS

**A**steburu honetan ekitaldiak dau-  
den arren, asteazkenean hasiko  
dira Hondarribiko festak. Jai es-  
parrutik harago doan ekitaldiak, Alarde-  
ak, zentralitate osoa izaten jarraituko du,  
azken hilabeteetan hondarribiaren artean  
sortu diren mugimenduek, Jaizkibel  
konpainiaren etenik gabeko lanak, eta  
maiatzaren 28ko udal hauteskundeeta-  
tik ateratako udal banaketa berriak au-  
kera berriak zabaldu baitituzte. Solda-  
du bezala emakumeak izango dituen  
konpainia bakarra izaten jarraituko du  
Jaizkibelek aurtien ere, ordea.

Bestelakoan, Hondarribiko festek  
dituzten ohiko osagaiek ez dute  
hutsik egingo. Egitarau osoa ikusteko  
aukera [bidasoahitza.eus](http://bidasoahitza.eus) webgunean  
dago. Edonola ere, Benta Zaharreko  
kontzertuak izango dira herritar  
gehien biltzeko traza duten ekitaldiak,  
eta horien artean izango dira Euskal  
Herrian sona handia duten taldeak,  
herrikoak tartean.

Hilaren 6an hasi eta 11n bukatuko  
dira Hondarribiko festak. Ordura arte,  
bada zertaz gozatu. ✕



Beti errespetuz  
eta txukun...

**Goieko**  
INDUSTRIA GARBITASUNERAKO  
SISTEMA ETA PRODUKTOAK

...ongi pasa  
Hondarribiko  
festetan!

*Irunen eta Beran*

*aurkituko gaituzu*

943 63 45 36

[www.goieko.com](http://www.goieko.com)



HITZA

# “Elkarrekin ospatzeko eguna irudikatzen has gaitezen gaurtik”

**NORA FERREIRA** JAIZKIBEL KONPAINIAKO KAPITAIN BERRIA

Hondarribiar gazteak estreinakoz gidatuko du Jaizkibel konpainia irailaren 8an. «Urduri, baina pozik eta arduraz» hartu dio lekukoa Oihana Etxebarrietari. Aurten «pauso handiak» egin dituztela dio.

IMANOL SAIZ GOMEZ DE SEGURA

## Nolako irailaren 8a izango da aurten- goa?

Nire aldetik ezberdina, kapitain bezala aterako naizelako. Urduri, pozik eta arduraz aurreikusten dut urte hau. Jaizkibel bezala, guk gure partetik hitz egin dezakegu soilik, eta aurreikusten duguna da geroz eta handiagoa den konpainia garena, beraz, iazkotik alderatua, jendetsuagoa izango den Jaizkibel batekin aurkituko gara, eta ziurrenik ere, kalean babes gehiago topatuko dugu. Atzerazina den aldarrikapen eta eskubideak kaleak eta espaloiak beteko ditu, eta horri geroz eta gehiago erantzuten eta begiratzen dion udal korporazio batekin aurkituko gara. Gehiengo dira emakumeon parte hartzearen aldeko posturak Hondarribiko Udalean, eta horrek ere isla izango du egunean bertan. Hala ere, oraindik bakartuta desfilatzen duen konpainia izaten jarraituko dugu, alarretik at dagoena, eta beraz, ez-normaltasun hori ere bizi beharko dugu beste urte batez.

## Aurtengo desfilean berritasunik izango dela uste duzue?

Keinu batzuk eskatu genizkion udal gobernuari, guretzat oso garrantzitsuak direnak. Gure eskaeren artean, goizean Gernikako Arbolatik abiatzea, arratsaldean *Zapateroa* Kale Nagusitik egin ahal izatea, jaietako egitarauetan Jaizkibeleko argazkiak eta ordutegiak ere agertzea, eta Guadalupeko botoan normaltasunez parte hartzea daude, adibidez.

Ez ditugu eskaera guztiak lortu, baina bai guretzat pauso handi diren batzuk, eta hauek, alarde parekidearen bidean aurrerapauso handiak dira Jaizkibel konpainiarentzako eta herriarentzako.

## Azkenaldian izan diren keinuak, Guztion Alardea taldeak abiatu duen sinadura bilketa, esaterako, nola baloratzen dituzue?

Ondo dago herria pixkanaka konturatzea eta mobilizatzen hastea, beti puntu positibo bat da. Erakunde guztiek puntu bera izatea komunean, hau da, emakumeek alardean parte hartzearena, nahiz eta bide eta erritmo ezberdinak jarraitu.

Talde berri guztiak ongi etorriak



**LARRAÑAGA PROIEKTUAK**

ERREFORMA INTEGRALAK - SUKALDEAK BAINUAK - BARNE DISEINUA

www.larranaga-proiektuak.com

Talaia industriagunea P-1, 8. lokala. OIARTZUN - Tel.: 943 558 104

**GORA AMA GUADALUPEKOA!!**



izango dira, baina ez da ahaztu behar Jaizkibelet gauza bera eskatu zuela due-la 30 urte. Zenbat eta gehiago izan, or-duan eta indar gehiago batuko dugu.

### **Zein da udal berriari egiten edo egin dio-zuen deia?**

Aurten, udal berriarekin, aldaketa nabarmena egon da. Komunikazio gehiago izan dugu batez ere, horregatik lehen aipatutako keinuz aparte, beste erakunde batzuekin elkarrizketa erraztea, eta ko-

### **Aurtengo desfilerako «aldaketa nabarmenak» espero dituzte**

munikazio sare bat sortzea beharrezkoa da, konponbide bat laster lortzeko.

### **Eta herritarrei, zer eskatzen diezue irai-laren 8rako?**

Egon daitezela beti bezala kaleetan Jaiz-kibel babesten, gure borrokan jarraitzen dugula, gure eskubideak lortu arte.

## **1.300 HONDARRIBIAR BAINO GEHIAGO, GATAZKAREN KONPONBIDEAREN ALDE**

Guztionez Alardea taldeak sinadura bil-keta bat abiatu zuen joan den uztaile-an, «Alardearen gatazkaren konpon-bidearen alde» urratsak egiteko. Lau oinarrizko eskaera (*bidasoa.hitza.eus*-en ikus daitezke guztiak) jaso zituz-ten horretan, herritarrek horiek babes ditzaten.

Bilketa jaien aurretik bukatzeko as-moa zutela kontatu dio HITZari tal-deko kide Telmo Sagartzazuk, baina urrira arte luzatzea erabaki dutela ze-haztu du. «Ikusita kopurua handitzen joan dela, jarraipena eman nahi izan

diogu, ahalik eta sinadura gehien bil-du nahi ditugu».

Oso pozik daude jasotako erantzun-arekin Guztion Alardea taldeko ki-deak, 1.300 sinadura baino gehiago lortu dituztelako gaur arte. «Datu in-dartsua da, pozik gaude».

Prozesua bukatu ondoren, jasotako sinadurak udalari eta Alarde Funda-zioari bidaliko dizkiete, Sagartzazuk esan duenez, «behin betiko eser dai-tezen eta asko luzatu den gatazka honi bukaera eman diezaioten. Hori da hondarribiar gehienon desira, nahia gero eta zabalagoa da, hori era-kutsi nahi dugu prozesu honekin». Negu inguruan alde guztiak bildu nahi dituzte, elkarrizketekin hasteko.

Keinu txikiak oso baliagarriak dira guretzat, eta segregazioa bultzatu nahi duten bideak ez babestea da horietako bat. Alardeak ezin du baztertzaila izaten jarraitu, ezin dugu onartu gure he-rrian horrelako zerbait gertatzen jarrai-tzea. Herritar guztiok elkarrekin ospa-

tzeko eguna irudikatzen has gaitezen gaurdanik.

Bide beraren alde borrokatzen jarrai dezagun elkarrekin, eta ez dezatela ahaztu benetako errebindikazioa eta mezua zein den: Alarde bakarra, publi-koa, eta parekidea. ✕



TXINGUDIKO ZERBITZUAK  
SERVICIOS DE TXINGUDI

## Ospatu primeran eta zaindu ingurumena!

Gozatu jaiak arduraz  
eta birziklatu.

BIDASOS  
2030



## GAZTE EGUNA

## Gazteek piztuko dute festaren suziria

IMANOL SAIZ GOMEZ DE SEGURA

Azken urteetako ohiturekin jarraituz, herriko gazteek jaiak aurreratuko dituzte. Festak hilaren 6an hasiko badira ere, bihar motorrak berotzen hasiko dira kuadrillak, Gazte Eguna egingo baitute. Denetik izango dela aurreratu dute antolatzaileek, eta denek, zapirik izan edo ez, txoko bat izango dutela.

«Guretzako Gazte Eguna jaien barruko ekitaldi bat da jada, egun horretan hasien dira jaiak guretzako», kontatu dio HITZA-ri antolatzaile lanetan dabilen Urko Iridoyk. Egun berezia dela aitortu du, «guk nahi dugun bezala antolatzen baitugu, guretik eta guretzat».

Iazkoaren itxura antzekoa izango du biharkoak. Goizetik hasiko da festa, 12:00etan botako dute suziria, Santa



laz bezala, kintoen arteko jokoak egingo dituzte goizean zehar. HITZA

Maria Madalena plazan. Ondoren, kintoen arteko lehia izango da erdiguneko kaleetan barrena. 14:30ean sabelak beteiko dituzte kuadrillek, Alamedan egingo duten bazkari herrikoian, eta ondoren, karaokea eta Hok Ttuk Hamalau, The Iiingles eta Skubi taldeen kontzertuak izango dira. DJ Zezenek itxiko du gaua.

Festa bai, aldarrikapena ere bai. Gazte Egunak ukitu aldarrikatzailea izan du beti, eta aurten ere borroka bati keinua egingo diote. Aurten, Irungo Harrera Sa-

rea izango da protagonistetako bat, haiek eskainiko dute pregoia. «Hondarribia ere harrera herria dela aldarrikatu nahi dugu. Irun kartzela bat da askorentzat, horren kontra egin nahi dugu». Irabazien zati bat emango diote sareari.

300 bat zapi saldu dituzte aurten. Antolatzaileak kontziente dira gazte asko gabe geratu direla, baina argi dute herri izaera hori mantendu nahi dutela. «Pena ematen digu zapi gehiago ez izatea, baina ez dugu nahi hau beste herrietan egiten diren jai erraldoi horietan bilakatu. Guk antolatu nahi dugu dena, gazteen artean». Zapirik izan ala ez, bertaratzeko gonbita egin die herriko gazte guztiei. «Asko dira tuperrarekin edo ogitarteko batekin etortzen direnak, ongi etorriak dira denak!». Eguraldi txarrarekin, Soro-etako pilotalekura lekualdatuko dituzte ekintza guztiak. ✕

**Hondar** Aupa Hondarribi!

www.restaurantehondar.com  
Zuloaga, 20. HONDARRIBIA. Tel.: 943 64 27 83

f

## 2023-2024 ESKAINTZA BEREZIA

Bidasoko **aek** Irungo euskaltegia

## ZER EGINGO DUGU?

Gaian sakondu eta 4 trebetasunak (entzumena, irakurmena, idazmena eta mintzamina) lantzeko aukera izango dugu.

## NOLA ARIKO GARA?

Ikastaro bakoitzari izaera ematen dion gaitik abiatuta euskalduntzera eta euskaltasunetik gaiaren muinerako joan-etorri etengabearen arituko gara.

## ZER BEHAR DA?

Ikastaroetan izena emateko ez da aurretiko ezagutza berezirik behar. Euskalduntzeko gogoia eta jarrera parte-hartzailea baino ez.

1. HIKA TALDEA - 2. EUSK (AHAL) DUNTZE TALDEA - 3. KULTURGINTZATIK ABIATUTA EUSKALDUNTZEN  
4. ZURE OFIZIOTIK ABIATUTA EUSKALDUNTZEN - 5. ALFABETATZE TAILERRA - 6. MINTZA TALDEA - 7. IDAZKETA SORTZAILEA

Ikastaro hauek guztiak, gainerakoak bezalaxe, Irungo Udalak diruz lagunduko ditu.

Informazio gehiago: irun@aek.eus | 943 62 88 34 | 688 74 66 33 (WhatsApp)



Bentako oholtzara igoko dira Sorotan Beleko Artola, Sarriegi, Salaberria eta Etxaniz. **HITZA**

## ‘Sorotan Bele gogoan’ herrira bueltan, murrizketarik gabe

**ALAINE ARANBURU ETXEGOIEN**

Gogoz. Gogoz geratu ziren hondarribiar asko 2021ean Kasino Zaharrean egin ziren *Sorotan Bele gogoan*-en bi kontzertuetara joateko. Pandemia garaia zen, pertsonen aforoa neurtuta zegoen, eta

elkarren arteko distantzia zen nagusi. Baina, oraingoan, bai. Oraingoan zutik eta dantzatzeko aukerarekin, jaien azken egunean (hilaren 11n) Kai Zaharreko oholtzak jasoko ditu talde hondarribiarraren kanta klasiko denak, 21:00etan, festak bukatzeaz direnean.

Duela bi urtekoarekin alderatuz ezberdina izango da 11koa. Izan ere, Gorka Sarriegi eta Urbil Artola kideez gain, Aitor Etxaniz eta Ritxi Salaberria Sorotan Beleko kideak batu zaizkielako. Gainera, Hondarribiko Hiria Musika Bandak are handiago egingo du ikuskizuna.

*Sorotan Bele gogoan*-ekin bira egina dute, baina saio gehienak areto itxietan izan ziren. Horregatik, Urbil Artolak esan du jai girora itzultzea «berezia» izango dela. Musikariak denbora behar izan du elkartze horretara egokitzeko, baina ja gustura dago, «azkeneko emaldietan konturatzen ari naiz jendearen sentsazioez, erreakzioez, eta bitxia da». Izan ere, duela 30 urte utzi zion jotzeari Sorotan Belek, eta Artola harrিতuta dago adin ezberdineko jendea bertaratzen ari delako ikuskizunera, «90 urtekoak bada, baita bere garaian zuzenean ezagutu ez gintuztenak ere, o eta 30 urte artekoak alegia». Hondarribiar askok festaren ajeaz gain, aje emozionala ere izango dute, ziur. ✕

**Udal Euskaltegiak.**

Publikoak, irekiak, guztiontzat

**EUSKARA,**  
bidaia  
harrigarria

#euskarharrigarria

**MATRIKULA ZABALIK**

**EUSKARA IKASTAROAK: AURREZ AURRE, ON-LINE edo konbinatuak.**

Izena emateko epea eta ordutegia:

irailaren 12tik 19ra  
10:00 – 13:00 / 16:00 – 19:00

**MAILA GUZTIAK**

AZTERKETEN PRESTAKETA. ERABILERA BULTZATZEKO EKINTZAK. ORDUTEGI ESKAINTZA ZABALA. ASTEAN BITAN, HIRUTAN EDO LAUTAN. INTENTSIBOAK ERE BAI. LANGABETUENTZAT DOAN. HOBARIAK, DIRU-LAGUNTZAK.

**HONDARRIBIKO UDAL EUSKALTEGIA**

Biteri kalea 20 / Tel.: 943 64 12 16

[www.hondarribia.eus](http://www.hondarribia.eus)

[euskaltegi@hondarribia.eus](mailto:euskaltegi@hondarribia.eus)



2023-2024  
**MATRIKULA**  
epea zabalik

## ERRALDOI ETA BURUHANDIAK

# Herriko altuenak dantzan jarriko dituzte

ALAINE ARANBURU ETXEGOIEN

Erraldoiak eta buruhandiak Euskal Herriko festa guztietan daude. Ia-ia Olentzero eta Mari Domingiren irismen indarra dutela esan daiteke. Gainera, haurrentzat fantasia mundu bat dira. Hondarribiko jaiak hastear dira eta herriko kale koloretsuak are koloretsuago egitera irtengo dira Izugarria Erraldoien eta Buruhandien Elkarteak. Trikitia izango dute lagun, titibiltia protagonista ez den hilaren 8an izan ezik, egun horretan ez baitute desfilatuko.



Alde Zaharrari buelta ematen diote Portura jaitxi aurretik. HITZA

Izugarriak konpartsak Hondarribiko Udalaren buruhandi eta erraldoiak ateratzen ditu dantzara. Normalean, sei erraldoi, antxoia eta balea ateratzen dira, handientzako eta txikientzako seina buruhandirekin batera. Horrez gain, hilaren 9an eta 11n zezensuzkoak dantzan jarriko dituzte San Pedro kalean, 21:00etan hasita.

Pandemiak kultur elkarteak gogor kolpatu zituen, eta Izugarriak taldea ez da salbuespena izan, Igor Eskamendi elkarteke lehendakariaren arabera. «Bi urte hauetan kanpora irteteko eskaintzak jaso ditugu, baina ez dugu aukerarik izan. Jendea behar dugu». Parte hartzeko konpromisodun 16 urtetik gorako jendeari egin dio dei Eskamendik. «Denok nahi dugu jaietz gozatu, eta parrandan ateraz gero, hurrengo goizean kosta egiten da erraldoiak eramatea». Sasoi onean egoitea ere beharrezkoa dela esan du, erraldoiek 30 eta 40 kilo artean pisatzen baitute. Irteeren berri izateko, joan [hondarribia.eus](http://hondarribia.eus) orrialdera. X

Done Pedro Itsas Gizonen Kofradiak  
jai zorionsuak opa dizkizue!

Gora  
Guadalupeko  
Ama!

**DONE PEDRO**  
ITSAS TRESNAK

[www.kofradia.org](http://www.kofradia.org)  
Tel.: 943 642152  
Txiplao, 8. 20280 Hondarribia.



**TXUPINAZOZA**

Ane Mendizabal

**Hilaren 6an, 10:45.** Hondarribiko Festa Nagusiak, ofizialki, hilaren 6an hasiko dira pregoi txikiarekin, txupinazoarekin, eta zezen puzgarriekin egiten den haurrentzako entzierroarekin. Konfeti eta globoekin beteko dute Kale Nagusia jaien hasieran.



**KONTZERTUAK**

Zea Mays

**Bentan.** Ezin dira falta Benta edo Kai Zaharreko kontzertuak. Aurtentzen, Zea Mays (hilaren 6an), Gozategi (8an), Hofe X 4:40 eta Ben Yart (9an), Bulego (10ean) taldeak eta *Sorotan Bele gogoan* emanaldia izango dira bertan. Beste espazio batzuetan ere badira kontzertuak.



**KUADRILLAK**

Ane Mendizabal

**Hilaren 10ean.** Kuadrillek tartea izango dute hilaren 10ean. 10:00etan, Bidasaldeko EKTk antolatua, kuadrillen arteko jolasak egingo dituzte Bentan, eta ondoren bazkariari ekingo diote.

**OLAGARRO**  
**KULTUR ELKARTEA**  
*Ongi irago herriko jaiak!*

*Egiluze Ikastetxeak  
 jai zoriontsuak  
 opa dizkizue.*

Infohondarribia@egiluzetaldea.eus  
 hondarribia.egiluzetaldea.eus

943 64 10 36

**egiluze**  
 HEZKUNTZA

*Hezkuntza familiarterako gaia baita*

**EGITARAU  
 OSOA  
 HEMEN**

labur.eus/  
 bidasoagenda

**abotsanitz**  
 Herriko jaietan parte hartu eta ongi pasal

*Falta direnak gogoan*

Anitza Euskalduna Auzolana Parte Hartzea



Hondarribiko  
Udala

**Jai zoriontsuak  
pasa eta  
euskaraz bizi**